


## IKUSPEGI BAROMETROA

### Atzerriko immigrazioaren inguruko jarrerak eta pertzepzioak. 2008ko ekaina

Begirada honetan, Ikuspegik garatu duen bigarren Barometroaren datuak aurkezten ditugu. Barometroa urtero egiten da eta euskal gizarteak atzerriko immigrazioarekiko pertzepzioak eta jarrerak aztertzen ditu. Halaber, eremu ekonomikoan, sozialean, kulturean eta hizkuntzakoan duen eragina du aztergai. Barometro honekin 2004an hasi genuen lerroari eusten diogu. Emaizta orokorrak eta aldagaien gurutzaketa garrantzizkoenak gure web-orrian aurki zenitzake.


#### 1. Arazoaren pertzepzioa

Zure ustez, gaur egun, zein dira Euskadin ditugun 3 arazo nagusiak? (Gehienez ere 3 erantzun: bat-bateko erantzuna)



- Euskadiko herritarrek ez dute immigrazioa arazo moduan bizi. %2,0k baino ez du aipatzen modu espontaneoan Euskadiko arazo nagusi gisa.
- Hiru erantzun espontaneoan multzoan Euskadiko herritarren %7,2k baino ez du aipatzen arazo gisa, eta hori baino askoz aurrerago daude langabezia (%54,4), etxebizitza (%42,9), ETA (%42,5), izaera ekonomikoko arazoak (%25,8) eta herritarren segurtasunik-eza (%10,5).


Txartel honetan ageri arazoetatik, zure ustez, zein dira Euskadiko hiru arazo nagusiak?




- Arazo-zerrenda bat eman eta bertatik hiru aukeratzeko eskatzen zaizanean, immigrazioak gora egiten du %10,3ra eta bere garrantzi erlatiboa areagotu egiten da, beste arazoekin bezala, baina gutxiago.
- %1,9k baino ez du aipatzen lehenengo aukeratzat, eta horren aurretik daude langabezia (%26,1), ETA (%25,9) edo etxebizitza (%18,6).

Gaia aldatuko dugu. Pertsonalki zein hiru arazok ukitzen zaituzte gehien? (Gehienez ere 3 erantzun: bat-bateko erantzuna)

- Arazo gisa duen garrantzia are gehiago murrizten da ea arazo pertsonala den, eta ez Euskadikoa, galdetzen zaienean.
- Modu espontaneoan, immigrazioa Euskadiko herritarren %1,1entzat baino ez da lehenengo arazoa.
- Hiru erantzunetako aipamen guztiak kontuan izanda, Euskadiko herritarren %4,9k baino ez dio beretzat immigrazioa arazo pertsonala dela.
- Maila pertsonalean aipamen gehien jasotzen dituen arazoa izaera ekonomikoko gorabeherekin lotutakoa da (%37,5).




Konparazioa 2007ko barometroarekin: zeintzuk dira Euskadiko hiru arazorik garrantzitsuenak? (Gehienez hiru erantzun: erantzun espontaneo)



- 2007 eta 2008ko barometroak alderatzen ditugunean, etxebizitza eta ETA arazotzat hartzea gutxitzen da eta langabeziarengatik arduraren areagotzen da.
- Era berean, immigrazioa arazo gisa erdira jaitsi da 2007ko datuekiko, %15etik %7,2ra.
- Hala ere, zazpi hamarren igo da immigrazioa arazo pertsonal moduan, %4,2tik %4,9ra.

## 2. Kultur-aniztasunaren kudeaketa


Kultura-aniztasunari buruzko zenbait adierazpen esango dizkizut. Esan iezadazu horietako bakoitzarekin zein neurritan zauden ados edo kontra



Euskadiko herritarrak kultura-aniztasunaren aldekoak dira:

- %55,7k dio ona dela kultura, etnia eta erlijio desberdinek osatzea gizartea.
- %65,1ek uste du etorkinen erlijio-praktikek ez dutela arriskuan jartzen gure bizi-estiloa, hain zuzen ere, iaz baino 12 puntu gehiagok.
- Euskadiko herritarren %59k ez du ondo ikusten atzeritarrek euren kultura eta ohiturak baztertu behar izatea guztiz onartuak izateko; 2007ko barometroan baino 5 puntu gutxiago.


Orain zenbait adierazpen esango dizkizut. Esan iezadazu horietako bakoitzarekin zein neurritan zauden ados edo kontra.



Halaber, euskal herritarrek elementu kultural komunak izatearen alde daude:

- Jende guztiak, bertakoek nahiz etorkinek, hizkuntza berbera hitz egitearen aldekoa da %48,9. Horretan ez dago aldaketarik iaiztik hona.
- Euskadi osatzen dugun pertsona guztiok tradizio eta ohitura berberak izatearen aldekoen eta aurkakoen kopurua berdina da gizartean.

Orain, Euskadin bizikidetza hobetzeko zenbait aukera emango dizkizut. Esan iezadazu horietako bakoitzarekin zein neurritan zauden ados edo kontra.




Dena den, elementu komunak bertako ohitura eta usadioetan oinarritu behar dute. Beraz, Euskadin bizikidetza hobea lortzeko,

- %56,4k uste du bertakoak ez direla ahaleginu behar pertsona etorkinen ohitura eta tradizio batzuk ezagutzen eta horietara egokitzen; ia baino 6 puntu gehiago.
- %66,5ek dio erabateko onarpenerako beharrezkoa dela bertako legediarekiko gatazkatsua diren erlijioaren edo kulturaren alderdiei uko egitea; ia 2007an baino 10 puntu gehiago.
- %87,1en iritziz, bertakoek ez diete uko egin behar euren ohiturei eta tradizioei; 2007an baino 6 puntu gehiago.
- %79,3k uste du pertsona etorkinak bertakoen ohiturak eta tradizioak berenganatzen saiatu behar direla; ia baino 3 puntu gutxiago.

### 3. Zerbitzu eta Eskubideak

¿Orain bertakoen zenbait eskubide aipatuko ditugu. Zure ustez, Euskadin bizi diren etorkinek ere baldintza beretan izan behar lituzkete eskubide horiek?




Baina, eskubideak aipatu eta gero, euskal herritarrek uste dute:

- Atzerriko herritar guztiak osasun-arretarako eta euren seme-alaben heziketarako eskubidea izatearen aldekoak dira; 2007an baino gehiago.
- Eta beste zerbitzu eta eskubideak erregulizatutako herritarrei bakarrik murriztearen aldekoak dira; 2007an baino gehiago.

#### 4. Euskara eta euskal-nortasunean eragina

Orain zenbait adierazpen esango dizkizut. Esan iezadazu horietako bakoitzarekin zein neurritan zauden ados edo kontra



Euskal herritarrek ez dute uste beren euskal nortasuna eta euskara arriskuan daudenik atzerriko immigranteak etortzeagatik:


- %66,8k ez du uste euskal nortasunaren galaran lagunduko duenik.
- %68,3k ez du uste euskal abertzaletasunaren nahiak etengo dituenik.
- %65,9k dio ez duela etengo euskararen garapen orokorra.
- %66,7k dio ez duela euskararen erabilera murriztuko, gehienek euskaraz hitz egiten duten lekuetan.
- Galdera guztietan, ezezkoak 6 eta 10 puntu artean egin du gora 2007koarekin alderatuta.

#### 5. Immigrante kopuruaren pertzepzioa

Euskadin bizi diren 100 pertsonatik, zure ustez, gutxi gorabehera zenbat jaino dira atzerrian, Espainiatik kanpo?

Euskal herritarrek gehiegizko pertzepzioa dute atzerritar biztanleriari buruz:


- Euskadiko herritarrek uste dute Euskadiko gizartearen %16,8 atzerritarra dela; iaz baino puntu bat gutxiago.
- 2008ko urtarrilean errolatutakoen portzentajea %5,4koa da.
- Euskadiko herritarren %78,9ren ustez atzerritarren kopurua gehiegizkoa edo nahikoa da; horretan ez dago 2007koarekiko alde nabarmenik.
- Errolatutako atzerritarren portzentajea eman diegunean, gehiegi edo nahikoak direla uste dutenen portzentajea



%59ra jaitsi da; 2007an galdera horren inguruan jasotako iritzia portzentaje berdina gutxi gorabehera.

#### 6. Eragina ekonomian


Orain, zenbait adierazpen esango dizkizut. Esan iezadazu horietako bakoitzarekin zein neurritan zauden ados edo kontra.



- 2007an bezala, herritarrek ez dute argi esaten immigrazioak Euskadiko gizartearengan eragin onak ala txarrak dauzkan, hau da, Otik 10erako eskalan, batez bestekoa 4,89koa da.
- 2007an bezala, herritarrek onartzen dute atzerriko populazioak, oro har, ekonomia hobeto joan dadin eta bertakoek nahi ez dituzten lanpostuak betetzen laguntzen dutela, baina, ondorio txarrak ere baditu: soldaten mailan eragiten du, bai eta gizarteko sektorerik ahulenetan ere.

## 7. Eragin sozialak

Orain, zenbait adierazpen esango dizkizut. Esan diezadazu horietako bakoitzarekin zein neurritan zauden ados edo kontra.




Euskal herritarrek, oraindik ere, badituzte zenbait estereotipo faltsu eta aurreiritzi negatibo atzerriko etorkinei buruz:

- %63,3k uste du gizarte-babesekeko sistema gehiegi aprobetxatzen dutela; iaz baino 3 puntu gehiago.
- %44,7k dio herritarren segurtasunarengan eragin kaltegarria daukala; 2007an baino 10 puntu gutxiago.
- %64,6k ez du uste jasotzen dutena baino gehiago ordaintzen dutenik. %1,3k bakarrik uste du etorkinek gero jasotzen dutena baino gehiago ordaintzen dutela. Atal honetan, ezezkoa indartu egin da 5 puntu baino gehiago, eta baiezkoa jaitsi egin da 2,5 puntu baino gehiago.

## 8. Immigrazio politika

Zure ustez, zer politika-mota litzateke egokiena atzeritar langileen kasurako?




- Euskadiko herritarren %7,9, 2007an baino apur bat gutxiago, ados dago etorkinak sartzeari legezko inolako trabarik ez jartzearekin, eta %3,1 baliabide guztien bidez eragoztearen aldekoa da.
- %81 lan-kontratua izanez gero sartzten uztearen aldekoa da; 2007an baino 3 puntu gutxiago. Edonola ere, beste inkesta eta ikerketa askotan ikusi denaren haritik, gizartearen zati handi batek lan-kontratua berme nahikotzat hartzen du oraindik, ziurtasuna ematen duelako eta susmoak saihesten dituelako.

## 9. Instituzioen jarduna

Baduzu euskal erakunde publikoak immigrazioaren arloan egiten ari den lanaren berri?

Nola balioetsiko zenuke Eusko Jaurlaritza eta haren Immigrazio Zuzendaritza egiten ari diren lana? Zer puntuazioa emango zeniekete 0tik (oso txarra) 10era (oso ona)?



Galdetegi honi erantzun dioten euskal herritarrek zera uste dute euskal erakunde publikoak immigrazioaren arloan egiten ari diren lanari buruz:

- Ia erdiak, %44,2k, ezagutzen duela dio, azaletik bada ere; 2007an baino 8 puntu gutxiago
- Eta 4,66 puntu ematen dizkiote Eusko Jaurlaritzak eta bere Immigrazio Zuzendaritzak egiten duten kudeaketari (2007an 5,10 puntu).

### Ondorioak:

- Euskadiko herritarrek ez dute ikusten immigrazioa arazo gisa (2007an baino gutxiago), ez Euskadiko arazo moduan ezta gutxiago ere arazo pertsonal legez.
- Euskadiko herritarrek kultur aniztasunaren aldekoak dira, baina asimilazioan oinarritutako integrazioa proposatzen dute iazko barometroan baino indar handiagoz.
- Euskadiko herritarrek osasun-arreta eta hezkuntza-eskubideak atzerriko pertsona orori aitortzearen aldekoak dira (2007an baino gehiago); baina beste zerbitzu eta eskubide jakin batzuk erregularizatutako herritarrei mugatzen diete (2007an baino gehiago).
- Euskadiko herritarrek, 2007an bezala, ez dute ez euskal nortasuna ezta euskara ere mehatxatuta sentitzen atzerriko pertsona etorkinak etortzearen.
- Euskadiko herritarren erdiek baino gehiagok uste dute, 2007an bezala, etorkin gehiegi edo nahiko daudela, baita benetako portzentajea jakin eta gero ere.
- Euskadiko herritarrek onartzen dute ekonomiak oro har hobeto funtzionatu dezan laguntzen duela immigrazioak.
- Euskadiko herritarrek oraindik estereotipo faltsuak eta aurreiritzi kaltegarriak dauzkate atzerriko immigrazioaren aurrean, 2007ko datuen ildo berean.
- Lan-kontratua izanez gero atzerriko pertsona etorkinei sartzeko uztearen aldekoa da Euskadiko herritarren %81 (2007ko barometroaren ildo berean).
- Euskadiko herritarren erdiek baino gutxiagok diote euskal erakunde publikoak egiten ari diren lana azaletik bada ere ezagutzen dutela, eta 4,66 puntuko balorazioa ematen diote Eusko Jaurlaritzaren eta Immigrazio Zuzendaritzaren kudeaketari (2007ko barometroaren ildo berean).

# HURRENGO BEGIRADAREN AURRERAPENA, 2008ko DATUAK

Abuztuko Begiradan 2008ko urtarrilaren 1eko errolda datuak jakitera emango ditugu. Dakizuenez, datu hauek behin-behinekoak dira eta neurri handi batean irudi egoki bat eskaintzen digute. Datuon arabera, 2007an 18.000 pertsona etorkin berri erroldatu da EAEn. Honela, atzerritar populazioaren ehunekoak 5,4koa izatera pasatu da, %0,8 iaz baino gehiago. Lurraldeka, Arabako populazioaren %7,3a da eta Gipuzkoa eta Bizkaiko %5,1.

Zenbaki erlatiboetan, 2007an EAEn erroldatuen kopurua urte guzti hauetako handienetakoa da. Aldaketarik nabarmenetarikoak Errumaniatik datorren populazioaren hazkundera da, aporazioetan lehen herrialdea bilakatzeko delarik, Kolonbiaren ordez.

Bestalde, ez da ikusten gune geografiko ezberdinen arabera aldaketa esanguratsurik, Latinoamerika delarik ia %50ren sorlekua.


## 1. taula. Atzerritar populazioaren bilakaera Espainia, EAE eta Lurralde Historikoen arabera. 1998-2008

	1998		2002		2005		2006		2007		2008*	
	K	Pop. osoaren araberako %	K	Pop. osoaren araberako %	K	Pop. osoaren araberako %	K	Pop. osoaren araberako %	K	Pop. osoaren araberako %	K	Pop. osoaren araberako %
Espainia	637.085	1,6	1.977.946	4,7	3.730.610	6,2	4.144.166	9,3	4.519.554	10,0	5.220.577	11,3
EAE	15.198	0,7	38.408	1,8	72.894	3,4	85.542	4,0	98.524	4,6	116.650	5,4
Araba	2.460	0,9	8.031	2,8	15.141	5,1	16.857	5,6	19.392	6,4	22.734	7,3
Gipuzkoa	5.301	0,8	11.716	1,7	21.536	3,1	25.290	3,7	29.040	4,2	35.786	5,1
Bizkaia	7.437	0,7	18.661	1,7	36.217	3,2	43.395	3,8	50.092	4,4	58.130	5,1

\*2008ko urtarrilaren 1eko behin-behineko datuen arabera

Iturria: EInko datuak.

## 1. Mapa. Atzerritarriko jatorri nagusien bilakaera. EAE. 1999 eta 2007. Balio absolutuak eta ehunekoak.



Iturria: EInko datuak.


## DOKUMENTAZIO ZENTROKO NOBEDADEAK

Ikuspegiaren dokumentazio zentroak helburu nagusi hauxe du: Euskal Herrian migrazio-fenomenoen, kultura-aniztasunaren eta kulturen arteko elkarbizitzaren alorrean egingo diren ikerketa guztietarako informazioa eta bibliografia eskaintzea. Hauxe da Ikuspegiaren dokumentazio zentroan hilabete honetan jasotako nobedadeen hautaketa. Dokumentazio zentroan inolako kontsultarik edo eskaerarik egin nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan. Ondorengo helbidean ere kontsultatu dezakezu gure datu-basea: <http://www.ikuspegi.org>. Webgune horretan, gainera, bibliografiako azken nobedadeak jasotzen ditugu buletin batean.



**Izenburua:** Los gestores del proceso de inmigración. Actores y redes de actores en España y Europa

**Egileak:** Ricard Zapata-Barrero eta Gemma Pinyol (arg.)




**Izenburua:** Integration of Female Migrant Domestic Workers: Strategies for Employment and Civic Participation

**Egilea:** The Mediterranean Institute of Gender Studies. University of Nicosia (koord.)



**Izenburua:** El fenómeno religioso. Presencia de la religiosidad en las sociedades avanzadas

**Egilea:** Eduardo Bericat Alastuey (koord.)



**Izenburua:** La situación de los refugiados en España. Informe 2008

**Egilea:** Comisión de Ayuda al Refugiado (CEAR)

## IKUSPEGIren AZKEN NOBEDADEAK

Hona hemen argiratu ditugun azken bi liburuak. Eskuragarri dituzu gure web-orrian: [www.ikuspegi.org](http://www.ikuspegi.org)

### • Hizkuntzak eta Immigrazioa

Hizkuntzak eta Immigrazioa argitalpena UNESCO Etxeko Amaraunaren eta IKUSPEGIren talde teknikoek egindako ikerketan oinarritu da. Ikerketa horretan, hizkuntza ofizialez landa, gure inguruan immigrazioaren ondorioz hitz egiten diren hizkuntzak identifikatu dira. Lehenetsuneko helburu gisa, hizkuntza horien berri ematea eta jatorrizko herrialdeetako informazio soziolinguistikoa eskaintzea da. Horrela, gizarte-sentsibilizazioan eragin nahi du hizkuntza- eta kultura-aberastasunaren inguruan, gizartearen elkar-ulertzea eta elkarbizitza erraztu eta sustatzeko asmoz.



### • Latinoamerikar biztanleria EAEn 2007 -Sintesia-

EAEko bertako biztanleak oinarritzat hartuta hainbat ikerketa egin eta gero, Ikuspegi, 2006. urtearen erdialdean, EAEn bizi ziren atzerritarrekin makro-galdeketa bati hasiera emateko unea iritsi zela erabaki zuen, eta mota eta tamaina horretako lehen izan zen. Une hartan 85.000 biztanle baino gehiago zeuden errolatuta, eta ez zegoen bigarren mailako iturrietako informazio zuzenik edo zeharkakorik. Eta Ikuspegi, bere sortzetiko helburuen barruan, informazio-huts hori betetzera behartuta zegoen. Lehenengo txostenaren sintesia aurkeztuko dugu hemen, latinoamerikarrei dagokiena: Kolonia, Ekuador, Bolivia, Argentina eta Brasil.



EAEko immigrazioaren inguruko informazio gehiagorako kontsultatu ezazu gure web orria: [www.ikuspegi.org](http://www.ikuspegi.org)

Behatokiaren beste zerbitzu batzuk ere zure esku daude:  
- **Dokumentazio zentrua:** kontsulta zerbitzua eta liburutegi mailegua eskeintzen ditu.  
- **Informazio estatistikoa.**

**Gurekin harremanetan jartzeko:**

Tlf.: 94 601 82 75  
Fax: 94 402 35 40  
e-mail: [info@ikuspegi.org](mailto:info@ikuspegi.org)

**Postaz eta pertsonalki** helbide honetan aurki gaitzakezu:  
Alameda Mazarredo 39, 4.C, 48009 Bilbo - Bizkaia